

**emakumea
eta
transmisioa,
euskal herrian
hizkuntza eta baloreak**

Egilea: Nagore Ferreira Zamalloa
2007ko iraila

AURKIBIDEA

LABURPENA	3. orr	
SARRERA	4. orr	
EUSKAL HERRIKO EMAKUMEA.		
Irudia eta errealitatearen artean	6. orr	
-Ama, emakume orduko.....	7. orr	
-Etxea, emakumearen espazioa	11.orr	
-Euskal matriarkatuaren inguruan	13. orr	
-Emakumea, euskal nazionalismoaren ikuspuntutik	17. orr	
EMAKUMEA ETA TRANSMISIOA. Emakumea sozializatzaile.....		21. orr
-Euskararen irautearen arduradun	21. orr	
-Baloreak, amaren altzoan	27. orr	
-Suaren inguruan, telebista heldu arte	30. orr	
HIRU EMAKUMEREN BEGIRADA.		
Landa-lanaren analisisa	34. orr	
ONDORIO NAGUSIAK	46.orr	
ERANSKINAK		
-Sakoneko elkarrizketak egiteko gidoiak	48. orr	
-Sakoneko elkarrizketen fitxa teknikoak eta transkripzioak.....	57.orr	
BIBLIOGRAFIA.....	67.orr	

LABURPENA

“Emakumea eta transmisioa Euskal Herrian” sakontze egitasmoaren izenburuak agertzen duenez, lan honek baditu hiru zutabe; lehenbizikoa emakumea da, bigarrena transmisioa (herri literaturarena, hizkuntzarena, baloreena...) eta hirugarrena Euskal Herria, kokapena azken batean.

Orain arte argitaratutako ikerketak ditu oinarrian beharraren alde teorikoak. Euskal Herriko emakumeari tradizionalki egotzi zaion irudia azaltzen da lehenbiziko atalean. Bigarren zatian, transmisioa lantzen dut, euskaran eta baloreetan zentratuz. Azken hamarkadetan izandako aldaketak telebistaren etorrerarekin lotu ditut.

Egitasmoaren hirugarren atalean landa-lanaren emaitzak topa daitezke, bertan sakoneko elkarrizketetan jasotako informazioa eta aurretik jorratutako eduki teorikoen arteko analisia aurkezten da.

Amaieran egitasmoa bukatu ostean bildutako ondorio nagusiak aurki daitezke.

SARRERA

Aspalditik neukan kezka baten emaitza da egitasmo hau. Emakumeak euskal kulturaren duen (eta izan duen, jakina) pisuan sakontzeko nahia izan da nire abiapuntua. Euskal kulturaz berba egiten dugunean, edo horretaz irakurtzen dugunean, bertsolariak aipatzen ditugu, idazleak, musikariak... eta ia denak gizonezkoak dira. Emakume izen gutxi etortzen zaizkigu burura. Emakumeak ez zaio oraintsu arte bere protagonismoa aitortu, liburuetan batu duguna beti izan delako idatzia zegoena, ofiziala, gizonek gizonentzat idatzitakoa.

Gauzak aldatzen ari direla diogu behin eta berriz, baina oraindik kultura nagusia hein handi batean gizonezkoek ekoiztutakoa da. Hamarkada gutxi arte -eta oraindik nabaria da adin batetik aurrerako populazioan-etxetik kanpoko gizonari zegokion eta etxe barrukoa emakumezkoari. Etxe barrukoaren gainean askozaz gutxiago dakigu, baina bertan gordetako aberastasuna ez da txikiagoa. Horregatik, emakumeek, belaunaldi belaunaldi, eskaratzetan kontatutako pasadizoak, ipuinak, kondairak... gogoan harturik emakumeak kulturaren transmisore moduan izan duen eta duen papera landu gura izan dut.

Euskal Herriko emakumearen inguruko bibliografiak gaia kokatzen laguntzen du, batez ere emakumearen irudiaren eta errealitatearen arteko bereizketa egiteko oso erabilgarria izan da. Orain arte niretzat susmoak zirenak lan zientifikoetan ikustea interesgarria izan da. Beste batzuek aurretik egindakoa jorratu ostean, kalera irten eta hiru emakumeren esperientziak jaso ditut. Hiru emakume, hiru belaunaldi. Lehenaldia eta orainaldiaren arteko aldea aztertzeko oso egokiak, baserritik kalerako bidea egin dutenak, euskaldun elebakar izatetik euskaldun elebidun izatera.

Euskal emakumearen irudia oso mitifikatua egon da, eta oraindik ere badago. Nire inguruan entzundako diskurtsoek bide hori lantzera bultzatu ninduten. Kontraesanek izan dute eraginik handiena. Emakumeek eurak baitira sarritan mitoaren defendatzaileak nahiz eta badakiten jakin mitoa besterik ez dela, eta hori aldaketzeko, hobetzeko, traba besterik ez dela. Ezinegon hori eta arestian aipatutako jakin-minak ekarri naute honaino.

EUSKAL HERRIKO EMAKUMEA. Irudia eta errealitatearen artean

Gizarte Zientzien edozein esparrutan, Soziologian bereziki, noski Soziolinguistikan ere eta inguruan aurkitzen diren diziplinetan, oinarri-oinarrizkoa da jarreraren eta jokamoldeen arteko bereizketa finkatzea. Azken batean, gauza bat da esaten dena eta beste bat da egiten dena. Bien arteko aldeak handiak izan daitezke, nahiz eta subjektuarentzako ez izan kontraesankorra. Gatozen landu beharreko gaira. Emakumeak Euskal Herrian badauka irudi bat, badauka hainbat ezaugarri osatutako irudia, errealitatean egunero-egunero bizi dugunarekin aldea duena.

Emakumea mitifikatua ageri zaigu historian zehar hainbatetan, erromantizismo kutsu handiarekin. Hala ere, herri literaturan, atsotitzen bitartez esate baterako, eskaintzen zaigun irudia nahiko gordina da. Kontrolerako mekanismoetatik oso hurbil daude Gotzon Garatek "*30.466 atsotitzak-proverbios-proverbs-proverbia*" liburuan emakumearen inguruan jasotako esaerak. Hogeita hamar urtetik gora eman ditu idazle elgoibartarrak baserriz baserri esaunda hauek jasotzen. (Garate, 2003)

"Astoa eta emakumea ez zaizkio iñori uzten"

“Emakumea eta zartagia sukaldean”

“Emakumearen indarra, negarra”

“Emazteak senar bat eta haur ainitz”

“Zakurrik hobe(re)naa etxekoa, emaztea auzokoa”

“Zakurrari hezur, emazteari iruzur”

“Andre alperra dauen lekuen erropa zarrrik kakoan ez da faltako”

“Andre barritsuek, sarri baztarrak loi”

“Andrak zarata asko, baia etxo (egite) gitxi”

Esaeretako batzuk, gainera, ez zaizkigu arrotzak egiten tamalez. Askoz gehiago ditu batuak Gotzon Garatek, eta denen tonua lagin honen antzekoa da.

▣Ama, emakume orduko

Emakumea Euskal Herrian ama izan da tradizionalki, batez ere, eta ia ama besterik ez da orain arte argitaratutako ikerketak erakusten digutenez. Amatasunak definitzen du, amatasunaren bitartez definitzen du bere burua, zeharka beraz. Seme-alabak dira jarraikortasunaren gakoa, eurak barik ezinezkoa da. Horra hor amatasunaren pisua. Bizirauteko beharrezkoa zen baserrian ondorengoak izatea. Ezkontzaren lehen helburua zen seme-alabak izatea, eta horren ardura emakumearena zen. Ezkondu eta

lasterrera haurdun geratzen ez zen emakumeak antsietate handiz bizi zuen egoera, oso larri (Aretxaga, 1988: 32).

Amaren irudia sakratua denarekin lotua ikusten dugu zenbaitetan. Begoña Aretxagak sinbologia nazioanalistarekin duen harremana nabarmentzen du.

“La retórica nacionalista ha asociado la imagen de *Ama* a aquellas ideas que se presentan como sagradas, que están por encima de lo humano. *Ama-aberria*, *Ama-euskera*, *Ama-lurra*, *Ama-birgiña*, aparecen en la simbología nacionalista como un todo inseparable” (Aretxaga, 1988: 98)

Emakumeak ama bezala ardura handia dauka, berea da ia ardura osoa, bai onerako eta txarrerako. Emakumearengan ama ona izateaz gain, langilea, neurriduna, adeitsua, antolatzaile ona, administratzaile ona, osasuntsua eta garbia izatea baloratzen da. (Askoren artean, 1985: 25) Ama idealizatua behin eta berriz ageritzaigu, bai gizarteko ideal bezala bai eredu pertsonal bezala ere.

Emakumea familiako hierarkian betetzen duen lekuaren arabera izan da definitua gure gizartean, izan daiteke alaba, emazte edo ama. Ezkondu arte aita eta neba

zaharragoen menpe egoten da etxean, baita aitita edo osaben pean ere (Askoren artean, 1985: 144).

Emakumearentzat seme-alabekin duen harremana bere bizitzako ardatz garrantzitsuenetakoa da. Seme-alabak koskortu ostean ere ardura hartzen jarraituko du, baita etxetik alde egiten dutenean ere. Amama bihurtzean ere berea izango da sarritan loben ardura, "quizás por el cumplimiento hasta sus últimas consecuencias de su rol de madre" (Askoren artean, 1985: 117).

Ama izatea emakumearen gainerako izate guztien gaineratik dago Euskal Herriko historian zehar. Teresa Del Valle antropologoak zuzendutako "Mujer vasca. Imagen y realidad" liburuan ondorio interesgarrietara heldu dira egileak.

"(...) El rol que la mujer cumple en la esfera familiar, condiciona sistemáticamente todas las actividades que lleva y quiere llevar a cabo. Es sobre todo el rol de madre el que mediatiza su libertad de acción, dado que las actividades realizadas por ella, tanto en la esfera sociocultural, de ocio, como en la política, están directamente relacionadas con su responsabilidad como madre. (...) la visión idealizada de la madre y las formas en las que continuamente se actualiza dicho mecanismo. Esto a su vez tendrá una incidencia

negativa en los cambios, tanto en los que la mujer quiera introducir en el rol de madre, como en la posibilidad de alternar o compaginar éste con otros roles" (Askoren artean, 1985: 146)

Familiak dauka lehentasuna, horren ingurukoak dira euskal emakumearen oinarrizko baloreak. Familiaren ongizatea etxetik kanpo egiten den beste edozein jardueraren gainetik dago. Etxe barrukoa da bere ardura, eta horren arabera ere baloratuko dute bera. Senarra eta seme-alabak dira emakumearen prestigio iturriak. Familia barruan harmonia mantentzea eta bitartekari moduan jokatzeko ere oso garrantzitsuak izan ohi dira lehenesten diren baloreen artean.

Begoña Aretxagak idatzitako "Los funerales en el nacionalismo radical vasco" lanean emakumeak etakide eta iheslarien hiletetan bete ohi duten rola jorratzen du. Egoera horietan ageri den emakumea ama da, edo emaztea baina batez ere ama ere badenean. Balore sinboliko handia hartzen du amak. Amen indarra behin eta berriz goraiatzen da.

"(...) La *indarra* femenina se expresa fundamentalmente en el estar, el contener, el apoyar, lo que se puede verse claramente en el ritual funerario donde

es la mujer quien tiene el papel de asumir una situación dolorosa" (Aretxaga, 1988: 93)

Hileta erritual hauetan gizona "gudaria" da, eta emakumea ama edo bikotea, babesa ematen diona. Emakumearengan iraunkortasunaren eta jarraitutasunaren ideiak dauka indarrik handiena. Ama bitartekaria da, iraganaren eta etorkizunaren artean dagoena.

▣Etxea, emakumearen espazioa

Emakumeari dagokion espazioa etxea, gizonari, berriz auzoa eta herria dagozkio. Espazio pribatua da emakumearena eta publikoa gizonarena. Hori da herri literaturak, atsotitzen bitartez esate baterako esaten duena, baina baita azken hamarkadetan egindako azterketek ere.

Euskal Herriko gizarte tradizionalan emakumeak etxea zuen bere jardueraren erdigune, janaria prestatzen zuen, erropak garbitu, umeak eta zaharrak jagon, zoroan lan egin, animaliak gobernatu... Auzolanean ere aritzen zen, auzoko baserrietan, beste emakume batzuekin batera. Beste egoera batzuetan ere joaten zen auzoko etxeetara, gaixoak zaintzera, norbait hiltzen zenean, edo emakume bat erditzen zenean (Del Valle, 1996: 11). Etxalde

batzuetan, soberakina zegoenetan, sarritan emakumezkoak arduratzen ziren produktuak merkatuan saltzeaz. Orduan ere beste emakume batzuekin izaten zuten hartu-emana.

Mendeetan zehar, baserriak bere kideen lanari esker iraun du, izan ere etxea, hau da bizilekua izateaz gain, produkzio unitate autonomikoduna izan baita. Familia osoak egin behar izan du lan baserrian, gizonak eta emakumeak, gazteak eta zaharrek, baita umek ere. XVIII. mende amaieran, baina bereziki XIX. mendetik aurrera aldaketa handiak izan ziren, egiturazko aldaketak hain zuzen ere, industrializazioa dela eta. Apurka-apurka, baserrian, baserriak berak ematen dituen errentetaz gain, kanpotik datorren dirua ere sartzen hasten da. Sarrera berri horrek gizonen soldatapeko lanak dira gehienbat. Baserrietako emakume gazte asko ere etxetik kanpo arituko dira lanean, neskame kasurik gehientsuenetan.

Familiek, hortaz, estrategia berriak bilatzen dituzte aurreran egin ahal izateko. Fenomeno hau nahikoa orokorra izan zen Bizkaian, non industrializazioak eragin handiena izan zuen hasierako hamarkadetan. Modu horretan, nekazaritzaren eta baserriaren kudeaketaren ardura gutxika-gutxika emakumeen eskuetan uzten hasten da. (Askoren artean, 1988: 68).

Baserrian bizi den emakumea industrializazio prozesutik kanpo geratzen da nolabait, horren ordeztu ordura arte zeuzkan ardurak ugaltu egiten dira. Baserriak ekoizpen gune legez garrantzia galtzen du industrializazioaren ondorioz. Familiak egoera berrira egokitzen dira, emakumea baserriaren mantentzera zuzenduz (Askoren artean, 1988: 68).

Gure inguruko gizarteetan moduan, etxea izan da emakumearen espazioa, eta etxe barrukoa da bere jardura. Familia, beraz, bere lehentasuna da, etxetik kanpo soldatapeko lana izan arren.

“(…) La mujer vasca considera que las actividades relacionadas con la esfera doméstica, con la organización de la casa y el bienestar familiar, tienen que estar por encima de cualquier tipo de actividad que se lleve a cabo fuera de casa, o que no tengan necesariamente como fin la familia en si misma” (Askoren artean, 1985: 221)

▣Euskal matriarkatua

Euskal matriarkatuaz nahikotxo hitz egin da, baita idatzi ere. Oraintsu gertatutako anekdota batek zur eta lur utzi ninduen. Uda honetan, oporretan, mutil esloveniar batekin egin genuen topo. Ezagutzen zituen lehenengo

euskaldunak omen ginen. Makina bat galdera egin ostean, zera itaundu zidan, "eta, zer uste duzu euskal matriarkatuaz?". Aho zabalik geratu ginen. Bada, argi dago Euskal Herritik kanpo ere ezaguna den kontua dela. Anekdotak bat besterik ez da, baina euskal matriarkatuak Euskal Herriko mugak gainditu dituela frogatzeko aitzaki aproposa dela irizten diot.

Euskal mitologian, J. M. Barandiaranek erakutsi bezala, emakumeak itzal berezia dauka, batez ere Mariren bitartez. Mariren mitoa delakoa eraikuntza kulturala da egile askorentzat, errealitate moduan aurkeztua izan arren zenbaitzuen eskutik. Modu horretan, emakumearen benetako errealitatea justifikatzen da, jainko izatera eramanez baina existitzen ez den munduan soilik. Izate mitiko horren bidez, gainera, emakumearentzat eramangarriagoa izango da gizartean bizi duen bazterketa, potere guneetatik urrun beti. (Askoren artean, 1988: 15)

Marik berebiziko garrantzia dauka euskal mitologian, bera da unibertso mitologikoaren erdigunea. Baina emakumearen poterearen idealizazioak ez du berarekin ezinbestez potere erreala ekarri behar, Teresa Del Vallek argitzen duen legez.

“Esta importancia de Mari dentro de la mitología vasca ha sido con frecuencia capitalizada para recalcar el poder de la mujer. A esto llamaría yo una idealización del poder de la mujer, pero no un indicador del poder real” (Del Valle, 1996: 52).

Gauzak horrela, oso zaila da emakumeak bere egoera aldatzeko ahaleginik egitea. Agian patriarkatuari komeni zaio bereziki euskal matriarkatua izan dela sinestaraztea. Beharbada, arrazoi horregatik bere defendatzaile gehienak gizonezkoak dira. Euskal matriarkatuaren aldeko tesiak ezin dezake oinarri bakar eraikuntza kulturala eduki errealitatea bailitzan. Patriarkatua berbak literalki “aiten nagusitasuna” esan gura du: “Una forma de organización social por la que los hombres dominan, oprimen y explotan a las mujeres”. Mendebaldeko gizarteek patriarkatu pribatutik (etxe barruan gertatzen dena) patriarkatu publikorako (estatuak eta merkatuak eragindakoa) prozesua ezagutu dute XX. mendean zehar. (Macionis, 1999: 350)

Andrés Ortiz Osés eta Txema Hornilla egileek euskal matriarkalismoa defendatu dute euren lanetan. “Mujer vasca. Imagen y realidad” liburuan lan hauek kritikatzeko dira, datu objektibo bezala eraikuntza kulturaltzat hartu behar direnak erabiltzen dituztela esanez.

“Este estudio es una respuesta a todo el cúmulo de invenciones acerca de la mujer vasca, invenciones mayoritarias de los hombres con las que poco tiene que ver la mujer vasca de hoy. (...) esa acogida de teorías que carecen de un peso científico, pero que encuentran eco en los medios de comunicación” (Askoren artean, 1985: 46)

Euskal matriarkalismoa gainerako kulturengandik bereizteko modu legez erabiltzen dute hainbat egilek, batez ere oraintsuagokoak diren kulturekin. Nagusitasun sentimendua ematen duen ezaugarria ere bada, nahikoa exotikoa. Azken batean, tesi erakargarria da. Baina baita arriskutsua, batez ere emakumearentzat berarentzat, lehen esan bezala aldaketareko indarrak neutralizatu egin baititzake, izan omen zenaren truke.

Euskal Herriko zenbait lekutan indarrean izan diren Foruek berezitasunek ere eragina izan dezakete ustezko euskal matriarkatuaren defendatzaileen artean. Lege berezi horiek ahalbidetzen zuten emakumea maiorazgoa izatea, seme-alabarik zaharrena zen kasuetan edo alaba bakarra zen kasuetan, eta abar, edo lurrak oinerdokotza bitartez jasotzea. Baina legeek aukera hori kontuan izan arren maiorazgoa zeukan emakumea “salbuespena” zen (Askoren artean, 1985: 42).

Harrigarria da ustezko euskal matriarkatuak izan duen oihartzuna, ulertzeko modukoa da agian hedabideetan izan duen presentzia gai "polita" baita, nahiko exotikoa eta erromantikoa, eta arreta piztea da azken baten komunibideen helburuetako bat.

▣Emakumea, euskal nazionalismoaren ikuspuntutik

Egile batek baino gehiagok aipatzen du euskal nazionalismoak emakumearen irudiak izan duen eta duen eragina. Emakumezkoaren inguruan lotzen diren baloreek arestian esandakoarekin zerikusi handia daukate. Nazionalismoak azken mendean euskal gizartean euki duen eragina kontuan izanik, aberesgarria iruditzen zait ikuspegi ideologiko horrek aurkezten duen emakume eredugarriaren ezaugarriak lantzea.

Euskal nazionalismoa, sorreran, ideologia guztiz tradizionalista izan zen. Sabino Arana Goirientzat emakumea "ahula" da, "gizona baino gutxiago", horregatik behar du emakumeak gizonaren babesa. Ama izatea –beste behin ere- bere ezaugarri garrantzitsuena, batez ere arrazaren jarraitutasuna ziurtatzeko. "Firmeza, fuerza, serenidad, sencillez, continencia", horra hor emakumeak behar zituen ezaugarriak. (Askoren artean, 1985: 227)

Egoera nabarmen aldatu da azken mendean, baina oraindik emakumeak apenas daude erabaki gune garrantzitsuetan. Oraindik orain emakumea ama edo arreba da batez ere gizartearen iruditerian, baita ezkerreko nazionalismoarentzat ere Begoña Aretxagak "Los funerales en el nacionalismo vasco" liburuan agertzen duenez. Baserri-giroko emakume idealizatua hartu izan du eredutzat nazionalismoak, alde batekoak zein bestekoak.

Frankismoaren garaian familiak kontrabotere legez indar handia izan zuen, izan ere nazionalismoaren kode sinbolikoaren erreprodukzioa familia barruan eman zen nagusiki (Aretxaga, 1988: 65). Nazionalismoaren biziraupenerako, beraz, ezinbesteko elementua izan da familia. Lehenago esan dugun moduan, emakumea da tradizioaren arabera familiaren ongizatearen eta harmoaniaren arduradun nagusia.

Eusko Alderdi Jeiltzailetik sortutako Emakume Abertzale Batza erakundeak bat egin zuen emakumearen irudi tradizionalarekin. Gizonei laguntza eskaintzea izan zen euren eginbeharra, bai gerra aurreko urteetan bai gerra garaian ere.

Hasiera-hasieratik gizonen menpe zeuden emakumeak euren jardun politikoan. Benefizentzia lanetan, sukaldaritza

ikastaroak antolatzen eta beste zenbait jardueretan soilik zuten nolabaiteko askatasuna. Hala ere, hauteskunde garaian presentzia nabarmena izan zuten, oso aktiboa, mitinen bitartez. Baina propaganda lan hau egoerak behartuta egiten omen zuten, salbuespen egoera bat zen beraz beraiek onartzen zuten legez (Askoren artean, 1988: 77).

XX. mende hasierako sasoi hartan, 1936ko gerra baino arinagoko urteetan eta gerra garaian baita, euren artean oso ezberdinak ziren ideologiak bat egiten zuten emakumezkoak gizartean izan behar zuen paperean. Ez zegoen alde handirik falangistek, euskal nazionalistek edo komunistek emakumearekiko helerazten zuten mezuan.

Behin gerra galduta, Frankismoa indarrean zela, emakume nazionalistak errepresioa ezagutu zuten, bai zuzenean bai zeharka (senar, seme edo senitartekoen bitartez). Identitate nazionalaren indartze eta berreskuratzean pisu handia izan zuten, erreferente kulturalak transmitutuz eta mantenduz. Diktadura garaian familiak protagonismo nabarmena izan zuen nazionalismoaren kode sinbolikoaren erreprodukzioan.

Ezkerreko euskal nazionalismoaren iruditerian ere amaren irudiak indar handia dauka, eta lehendik datozen balore askorekin bat egiten du irudi horrek ere.

“En el funeral nacionalista esta fuerza de contención es un atributo constantemente proyectado en la mujer, resaltándose la entereza con la que la madre asume la muerte del hijo o la firmeza de la esposa al enterarse de la muerte de su marido. (...) La fuerza contenedora como atributo femenino se resalta sistemáticamente en crónicas y artículos cada vez que un militante de ETA o de la izquierda abertzale es asesinado. (...) Su fuerza está en el apoyo efectivo y a menudo ideológico que proporciona, incondicional y siempre presente” (Aretxaga, 1988: 93-95).

EMAKUMEA ETA TRANSMISIOA. Emakumea sozializatzaile

Etengabeko sozializazioa bizi dugu gizakiok, jaiotzen garen unetik hiltzen garen arte. Hasierakoak, lehenbiziko urteetakoak dauka gerora indarririk handiena. Gizakion lehen urte horiek familian igaro ohi dira, gurasoekin kasurik gehienetan, gure gizartean behintzat. Emakumeek sozializazio horretan zeresan handia izan dute eta dute orain, eurena izaten baita seme-alaben zaintzaren ardura. Emakumearen egoera nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, baina oraindik askoz denbora gehiago eskaintzen diote lan horri gizonezkoek baino.

Ama izan da traidizionalki, beraz, umeen sozializatzaile garrantzitsuena. Emakume gazteak etxetik kanpo lanean hasterakoan umeen zaintzari denbora gutxiago eskaini ahal izan diote, euren ordeaz amamek hartu dute lekua sarritan.

▣Emakumea, euskararen irautearen arduradun

Gure aurreko belaunaldietatik jasotako iruditeriaren arabera, emakumea euskal baloreen, identitatearen eta hizkuntzaren zaintzailea eta transmisorea da. Emakumea izan da oraintsu arte seme-alaben arduradun bakarra, dela

ama, amama edo etxean bizi den izeko ezkongabea. Emakumeak hazi izan ditu umeak, berak irakatsi die beraz hizkuntza. Eta hizkuntzaren bitartez heltzen zaizkio haurrari baloreak, identitatea, erreferente kulturalak...

Emakumea Barandiaranen eta J. Caro Baroja obran aztertuz gero, kulturaren transmisioaren erdigunean topatzen dugu.

“La mujer se encarga de todo lo relacionado con la organización doméstica (...) tareas de socialización y transmisión de la lengua” (Askoren artean, 1985: 24).

“Caro Baroja destaca la transmisión de la cultura a través del proceso de socialización, donde la lengua juega un papel importante, valorando el papel de madre como transmisora” (Askoren artean, 1985: 29).

Emakumeak, beraz, garrantzi handia izan du tradizionalki Euskal Herrian hizkuntzaren transmisioan. Eginkizun hori nabarmendu egin du nazionalismoak bere idearioaren bitartez, aurreko atalean azaldu dugun bezala. Hala ere, gutxitan aitortu zaio emakumeari hizkuntzaren alde egindakoa. Beste batzuetan legez, “euskal emakumea” delakoaren inguruan eraikitako mundu erdi-mitiko, erdi-erromantikoan geratu dira hizkuntzaren alde egindakoa ere.

Etxeko sukaldea izan da belaunaldiz belaunaldi euskararen ikasketarako espazioa, baita oraintsuago ere bertan antolatu baitzituzten andereñoek lehenengo ikastolak. Hizkuntzaren transmisio naturalean zein kulturalean protagonismo handia izan du emakumeak, nahiz eta ez duen errekonozimendu handirik jaso. Teresa Del Vallek hurrengo gogoeta interesgarria plazaratzen du.

“Es interesante constatar que las *ikastolas* en muchos casos surgieron en la cocina. Y sin embargo, la realidad de que la lengua se ha transmitido en el espacio de la mujer sólo adquiere su aparato formal, su institucionalización, su lugar en la academia cuando sale a la plaza (...) En la oficialidad de la lengua, en Euskaltzaindia, en el bertsolarismo, los medios de comunicación, la enseñanza universitaria, las mujeres son minoría” (Del Valle, 1996: 13).

Eskaratzetik plazarako bidean zeozter gertatu da emakumeen lanaren onarpenaren kalterako. Hutsune bat dago hor.

“¿Qué elementos han desviado esa potencialidad de la mujer ya demostrada en el desarrollo de la teoría y la metodología de la enseñanza? ¿Qué factores han influido para que fuera de la casa la utilización del euskara como

símbolo de prestigio la hayan tenido los hombres?" (Del Valle, 1996: 13).

Herri literaturan, ahozko literaturan, hizkuntzaren transmisio naturalean zein kulturean izandako lekua izan arren, emakumeak ez dauka onarpen publikorik. Adierazgarria da ikustea adibidez zenbat emakume idazle dauden, eta nolako zailtasunak dituzten idazle bezala onartuak izateko, gizonak besteko idazle esan nahi baita. Euskaltzaindia ere oraintsu arte guztiz maskulinoa zen, berriki sartu dira zenbait emakume. Bertsolarien kasua ere deigarria da, zenbat emakume ikusten ditugu plazetan? Eta txapelketetan?

Euskararen bilakaera historikoan joera bi bereiz daitezke emakumeen paperari dagokienez orain arte burututako ikerketen arabera, bata erderaren aldekoa nekazal herri txikietan, bestea euskararen berreskurapenearen aldekoa.

Azkenengo urteetan beste portaera batzuk agertu dira soziolinguisten lanetan, Siadeco enpresak Gipuzkoako udalerrri hiritartuetan egindako azterketan esate baterako. Adin guztietako populazioa kontuan hartzen duen ikerketa honetan azpimarratzekoa da gazteen artean emakumeek gizonak baino euskara gehiago egiten dutela aurkitzea. Kike Amonarriz soziolinguistak "Euskararen erabilpenaren

feminizazioa” artikuluan azaltzen duenez, alderik handiena gazteen artean topatu dute.

“Sexuen arteko desberdintasunik handienak berriz, gazteen artean gertatzen dira. Neskek darabiltena baino bi bosten gutxiago darabilte mutilek euskara oro har. (...) Neska gazteek euskararekiko atxekimendu-maila altuagoa azaltzen dute” (Amonarriz, 1995: 93).

Ikerketa honetan jasotako datuen arabera, adin-multzo guztietan, populazio zaharrenaren artean izan ezean, emakumezkoak atxikimendua handiagoa da gizonezkoena baino. Hipotesi bat baino gehiago aurkezten ditu Amonarrizek datuak interpretatzerakoan, alde batetik, gaur egun oraindik umeen hezitzaileak gehienetan emakumeak izanik euskararen normalizazio prozesuan hartu duten inplikazioagatik, eta beste alde batetik emakumeek izan ohi dituzten lanbideen hizkuntz eskakizunek bultzatuta (Amonarriz, 1995: 94). Horregatik guztiagatik euskararen erabileraren “feminizazioa” aipatzen du.

Hizkuntza minorizatuen kasuan sexuen arteko rol banaketak hizkuntzaren erabilpenean eragin zuzena daukala esan genezake. Egile batzuek emakumeen eta gizonen rola guztiz orokortu nahi izan dituzte, batzuetan emakumeak aldaketa linguistikoaren buru ezarriz eta beste

batzuetan hizkuntzaren gordetzaile (Erize, 1997: 291) gauza bera gizonekin.

Baina errealitatea anitzagoa, eta ezinezkoa da joera orokorrak topatzea, lekuaren eta garaiaren arabera rolak aldatu egiten baitira. Euskararekin gauza bera gertatu izan da. Herri txikietan emakumeek erabilera kontserbatzaileagoa egin omen dute, eta hirietan ordea berrikuntzak eragin dituztela (Erize, 1997: 289).

Sexuen arteko rol banaketak hizkuntzaren erabilpenean zeresan handia dauka, horra hor ondorio nagusia. Baieztapen hori kontuan izanik, emakumeek edo gizonen izan dezaketen partehartzea guztiz ezberdina izan daiteke testuinguruaren arabera.

Atal honen hasieran azaldu bezala, emakumeak zeresan handia izan euskararen transmisioan, eta oraindik ere badu nahiz gaur egun ardura banatuagoa dagoen gizonekin batera. Testuinguru horretan, gure artean nahiko berria den fenomenoak jorratu nahiko nuke. Guraso biek etxetik kanpo lan egiten duten kasuetan seme-alaben zaintza aitita-amamek egiten dute batzuetan, beste batzuetan soldatapeko jagole batek. Guraso euskaldun askoren gurasoak ez dira euskaldunak. Gauzak horrela, familia askotan bigarren belaunaldia (haurren gurasoak) euskalduna izan arren, lehenengoak (aitita-amama)

hirugarrena (haurrak) hezitzeko ardura hartzen duenez euskararen transmisioa kolokan jar daiteke. Badirudi atzerapauso bat egon daitekela.

Onartezina da, jakina, egoera berri horren erantzule etxetik kanpo soldatapeko lana daukan emakumea egitea. Familia eredu berriak sortu dira eta gizarteak ez du asmatu oraindik nola moldatu, ardurak ez dira oraindik banatu emakumeen eta gizonen artean. Horrez gain, orain arte funtzionatu duen eredu nagusi bada ere, gero eta eredu ezberdin gehiago agertzen ari dira gizarte garaikidean; behin baino gehiagotan ezkonduko bikoteak, gizon edo emakume banatuak, guraso bakarreko familiak...

▣Baloreak, amaren altzoan

Hizkuntza bezala, baloreak ere, Euskal Herriko eredu tradizionalen arabera, amaren altzoan jaso dituzte umeek. Balore horiek oso tradizionalak izan dira plazaratutako ikerketen ageri duten bezala, eta sexuaren arabera oso banatuak gainera. Familia eta honen beharrianek gidatu izan dute gure artean emakumearen jokaera, eginkizun horietatik eratorriak dira jaso dituen baloreak eta ondoren berak transmititu dituenak.

Emakumeak izan behar du langilea, esanekoa, apala, garbia, erlijiosoa, ama ona, emazte ona eta gizonaren apoioa. “Emakumea, euskal nazionalismoaren ikuspuntutik” atalean azaltzen den eran, emakumeak indarra, sendotasuna, soiltasuna, kontinentzia eta patxada erakutsi behar ditu, horiek dira nagusi diren baloreak.

Euskal Herriko emakumeak, gure inguruko beste gizarte batzuetako emakumeen antzera, tradizionalki jaso duten baloreen artean dago bitartekari izatearen garrantzia. Etxeko bakea eta orden familiarra gordetzeko ardura dauka emakumeak (Del Valle, 1996: 21). Etxekoen arteko batasuna eta harmoniaren alde egin ohi du emakumeak.

Barandiaranen eta J. Caro Barojaren lanek erakutsi bezala, Euskal Herri tradizionalan emakumea familiaren ordezkari erlijiosoa da, heriotzaren alorrean batez ere. Bitartekari lana egiten du bizien eta hilen artean. Funtzio bera, bitartekariarena, bakearen zaintzailearena, betetzen du etxe barruan ere, gehienetan aita eta seme-alaben artean (Askoren artean, 1985: 209). Portaera hori jarraituz, emakumeak zenbait gauza “tapatu” egiten ditu gizonaren aurrean, “bakea” egon dadin, izan daiteke esandakoa baino beranduagoa heltzea etxera, aitak onartu bako gastu bat egitea...

Euskal gizarteaz egindako azterketetan antropologo eta soziologoek emakumeak baloreen transmisore moduan izandako pisua nabarmentzen dute. Euskal nazionalismoak ere indartu egin duen irudi hori, euskal identitatearen biziraupenaren ardatz bihurtuz. Transmititu beharreko baloreen artean nazionalismoa bera ideologia bezala dago, jakina.

“En el caso vasco: la familia, la iglesia, la ideología nacionalista, han sido los principales pilares sobre los que se ha elaborado el marco de valores dominante. Su fuerza reside en que al ideal de mujer se le ha ido dotando de unas características naturales y fijas que ha ayudado a su permanencia e impermeabilidad” (Del Valle, 1996: 70).

Emakumearen transmisio eginkizuna, nola ez, etxe barrura mugatzen da, etxea, sukaldea da bere tokia. Amaren altzoa, horra hor irudi guztiz erromantikoa. Emakumeari aitortzen zaion eginbeharra nahiko anonimoa eta pasiboa da, beraz, oso apaindua eta dotore aurkezten bada ere.

Euskararen bezala, baloreekin ere, emakumea ikusten dugu arduradun nagusi gaia horren inguruan argitaratutako lanetan. Familia izan da, eta honen barruan emakumezkoa, balore horiek transmititu dituen. Azken hamarkadetako aldaketek emakumea etxetik kanpo lan egitera eraman

dute, baina horrek ez du suposatu gizonaren sarrera. Eskolak, eta bertan dauden hezitzaileek, hartu dute hein handi batean baloreen transmisioaren ardura azkenengo urteetan.

Eskolaz gain, beste zaintzaileek ere gero eta presentzia handiagoa dute umeen heziketan. Kasu batzuetan gurasoen gurasoak hartzen dute lan hori, beste batzuetan familiarik kanpoko norbaitek. Hizkuntzarekin dudak kezka antzerakoa daukat esparru honetan ere, aitita-amamek transmititu ditzaketen baloreak ez ote dira izango atzerapauso bat kasu askotan? Esan nahi baita, aurreko belaunaldiak hurrengoak baino kontserbadoreak izan ohi direla eta horrek izan dezakeela eragina umeengan.

Etxekoa ez den zaintzailearen kasuan, gero eta maizago etorkinek hartzen dute ardura hori. Gure gizarteak bizi dituen eraldaketok izango dute nolabaiteko oihartzuna, eta urte gutxian aztertu ahal izango ditugu.

▣Suaren inguruan, telebista heldu arte

Suak, sutondoak indar handia dauka sinbolikoki euskal kulturaren. Suaren inguruan gauza asko gertatzen ziren lehenago etxeetan. Suaren gainean prestatzen zen janaria

eta suaren inguruan jaten zen. Etxeko lekurik epelena izaki bertan egiten zen eguneroko biziaren zati handia, bertan jotzen zuten emakumeek, bertan umeei jaten eman, bertan aritzen zen familia solasean... Etxeko erdigunea zen sutondoa. Garai hura atzean utzi dugu, baina gaur egun oraindik etxe askotan eskaratza da eguneroko bizimoduaren nukleo garrantzitsuena.

Egunean zeharreko pasadizoak, herriko txutxumutxuak, oraintsuko eta aspaldiko kontakizunak, ipuinak, abestiak eta beste makina bat konturen eszenatoki izandako sutondoak bat-batean garrantzia galdu zuen betere arriskutsua ez zirudien telebistaren agerpenarekin. Lehenago suari begira igaroten baziren ere afalosteak duela hamarkada batzuetatik hona gure begiradak telebistara zuzentzen ditugu, berba egiteko aukera galdua. Aldaketak galera sentsazio handia utzi du sasoiko jende askorengan.

“En los últimos años la televisión ha suplido en los caseríos las horas que antes se dedicaban a charlar y contar viejas historias o cuentos, perdiéndose progresivamente las tradiciones de la narrativa oral” (Askoren artean, 1985: 126).

Telebistak eragin izugarria izan du gure gizartean, baina baita gure inguruko gizarte garaikideetan. Egun telebistaren eragina globala dela esan genezake, munduko

edozein txokotara heldu baita. Telebistak berak hedatzen dituen baloreak, ereduak eta ideologiari garrantzia kendu gabe, mass media berak duen eragina izugarria izan da. McLuhanek esan bezala "bitartekoa bera da mezua".

Hala ere, telebistarekin batera beste aldaketa batzuk ere izan ziren garai hartan gure gizartean. Produkzio modua aldatu egin zen, lan harremanak aldatu ziren... gizartearen antolaketa bera aldatu egin zen. Baserrian, gizarte tradizionallean, denbora beste modu batera ulertzen zen, patxada gehiagorekin. Denbora mugatzeko urtaroak zeuden, eta urtaro bakoitzari zeregin batzuk zegozkion; eguna eta gaua ere erabiltzen ziren denbora mugatzeko, eta bakoitzean eginkizun batzuk gauzatzen ziren. Nekazal gizarte industrialara bihurtzean, eta ondoren zerbitzuen gailentzearekin, denbora beste modu batera neurtzen da, modu estuagoa batean. Beti presaka gabiltza esaten digute sasoikoek, eta hala da beraiantzat.

Antolaketa berriekin denboraren definizioa aldatu egin da, lantegietako lanak ordutegi bat dauka baserrikoak ez duen bezala, adibidez. Lantokira mugitu beharrak garraio publikoen ordutegiak kontuan hartzeraren eramaten gaitu. Gizarte tradizionallean ia garrantzirik ez zuen denborak, ia existitu ere egiten ez zen kontzeptu horrek lehentasuna hartzen du gizarte modernoan. Denbora ez da gehiago mugaezina izango.

“Así, al cambiar las relaciones dentro de la familia, se dan menos oportunidades para esos momentos pausados, en los que los silencios, la sensación del tiempo ilimitado, evocan los relatos pasados o el comentario jocoso que acompaña la narración del acontecimiento cercano. Todo esto a su vez influenciado por la introducción de los medios de comunicación” (Askoren artean, 1985: 271).

Hedabideek lekua kendu diote sutondoari, ez soilik espazioari dagokionez, hau da lehen sutondoa erdigunean bazegoen orain telebista dago, eta hara zuzentzen da etxekoen arreta; horrez gain, sutondoan gertatzen zen informazio trukaketa, hizketa ordezkatu du. Telebistaren mintzoak bere inguruan jesartzen direnarena isildu du. Han eta hemen gertatutako albisteek, AEBetako telesailek, realityek eta beste mota askotako saioek bete dute lekua. Sutondoa mendeetan zehar transmisio gune izan den modu berean gaur egun etxe gehienetan “telebistondoa” bilakatu da kulturaren transmisioaren zentro, modua eta mezua guztiz ezberdinak badira ere.

HIRU EMAKUMEREN BEGIRADA. Landa-lanaren analisia

Ikerketa-lan honen bigarren zatia landa-lana da, hiru emakumeri egindako elkarrizketa sakonak hain zuzen ere. Etxe bereko hiru emakume aukeratu ditut, belaunaldi ezberdinetakoak. Hiruak baserrian jaiotakoak dira, eta horietako bi oraindik baserrian bizi dira. Beharraren alde teorikoan jarraitutako eskema bera jarraituko dut elkarrizketetan jasotako informazioa lantzeko.

Lan aberasgarria izan da, baina mugatua kopuruari dagokionez. Ikerketaren arlo teorikoan agertutako alderik gehienak agertzen dira landa-lanean, batzuk beste batzuk baino modu sakonagoan hiru elkarrizketatuek emandako erantzunen arabera. Hizkuntzaren gaia izan da emankorrena, oroitzapen ugari dute gai horren inguruan eta nabari da euskararen inguruan hausnartu dutela, diskurtso propioa dutela.

▣Euskal Herriko emakumea

Euskal Herriko emakumearen irudiaren eta errealitatearen arteko aldea bereiztu nahian hasi dut beharra, **ama** izatearen inguruan hain zuzen ere. Landa-

laneko informatzaile izan ditudan hiru emakumeei “emakume ona” nolakoa den galdetzean amaren figura behin baino gehiagotan ageri da.

Elkarrizketatuen artean zaharrenak gogoan ditu amak irakatsitako hainbat gauza, esate baterako etxea antolatzeko gomendioak.

“Emakumeak patxadazkoak izan behar du, horrela erakutsi zigun gure amak. Gauzak egiten jakin behar du emakumeak, etxeko gauzak eta. Amak esaten zigun zorora lanera joan orduko etxeko lanak egin da uzteko esaten zigun amak, “Iñarrea pasetako astirik ez badago egon dadila, baina oheak eginda, eta abarketak euren lekuan egon behar dira” (Emakumea I, 87 urte)

Umeen ardura emakumearena da elkarrizketatu nagusi bien ustez, seme-alaben zaintzari garrantzi handia ematen diote, baina baita beste eginbehar batzuei ere.

Informatzaile nagusienarentzat **etxea**, baserria, izan da bizitokia eta lantokia ia bizi osoan zehar. Bere diskurtsoan etxeak presentzia handia dauka, baita bere alabarenean ere, baina hasieran batean pentsatutakoa baino gutxiago. Nagusienaren erreferente garrantzitsua da plaza, plazako lagunartea, edo auzoa.

“Artoa zuritzen genbiltzanean batez ibiltzen ginen kontu-kontuka, baina igual gehien-gehien auzonekoak ere etortzen

zirenean... Beti batzen ginen sutean... Baina kalean ere entzuten genituen horrelako kontuak, igual etxean baino gehiago". (Emakumea I, 87 urte)

Bere alabarentzat auzoa izan da batez ere erreferentea.

"Nik etxean baino gehiago gogoratzen dut kanpoan zelan batzen ginen. Hamalau ume ginen buzonean". (Emakumea II, 53 urte)

Emakume hauek etxea izan dute beharleku, batak etxekoandre bezala, eta besteak baita nahiz eta etxetik kanpo soldatapeko lana izan. Etxea erreferente garrantzitsua bada ere, auzoak ere badu zeresana.

Etxea emakumearen espazioa izan dela ikusi dugu aurreko ataletan, baina elkarrizketatutako emakumeek etxetik kanpo ere aritu behar izan dute. Industrializazio garaian familiek asmatutako estrategia ekonomikoetan parte hartu zuen informatzaile nagusienak. Ezkondu arte aritu izan zen lanean.

"Erderaz kanpoan ikasi nuen, kriada egon naiz urte askoan, Donostian eta Pasaian eta han ikasi nuen. Botikan ere lanean egon nintzenean, kriada, kanpotarrak zirenez han ere egin behar izan nuen erderaz. Gerra zen orduan". (Emakumea I, 87 urte)

Hamabi urterekin hasi zen lanean, neskame beti. Alaba 18 urterekin hasi zen lanean etxetik kanpo, horrek ez zion etxeko lanak saihestea. Hirugarren belaunaldiak gauzatu du, nolabait, aldaketa. Baina, kontziente da etxetik kanpo egiten duen soldatapeko lana ez dela aukera bat, beharrezana baino. Aldaketaren objektua da beraz, eta ez hainbeste subjektua.

“Bakoitzak bere lana euki behar du, bai. Umeak eukiz gero beharra ez nuke utziko. Nahiko nuke lau hilabete horrek baino denbora gehiago hartu igual, baina beharra utzi ez. Gaur egunean gainera ez da nahi edo ez, ezin daiteke soldata baterekin bizi. Batekin ezin daiteke urrunetik ere dena ordaindu. Nahi izanda ere ezin izango nuke lana utzi. Loteria tokatu ezean...” (Emakumea III, 28 urte)

Euskal matriarkatuaren inguruan, bitxia da elkarrizketetan zehar gaiaren inguruan nik aipamenik egin ez arren nola emakume helduak bere ikuspuntua azaltzen duen.

“Emakumeak egiten zuen dena lehen baserrian. Jatekoa egin, umeak jagon, etxeko zaharrak jagon, garbitu, kortako beharrak... *Matriarcado vasco* zen lehengoa, dena eramaten zuen berak... Bera da arduraduna. (...)Ba, agindu gizonak aginduko zuen ia beti. Baina andra inportantea zen etxean, eramaten zuen dena. Andra barik nekezago zebilean etxea gizon barik baino. Andra faltatzen zenean asko igartzen zen, orain ere holan da nahiz eta gaurko mutilek denetarik egiten duten...” (Emakumea II, 53 urte)

Elkarrizketatuak azaltzen duenak ezer gutxi du matriarkatutik, hala ere esanguratsua iruditzen zait nahiz ideiak nahastuta ageri dituen. Heldu da berarengana euskal matriarkatuaren ideia, eta txarto azaldu diotelako edo txarto ulertu duelako, etxeko arduradun nagusia izatearekin lotzen du. Baina argi dauka agintzen zuena gizona zela. Euskal matriarkatuari eskainitako atalean esan dudan bezala, ideia horren hedapenak izan dezake ondorio perbertso bat, hots emakumeak mundu mitiko baten protagonista bilakatu mundu errealean izan ditzaketen nahiak neutralizatuz. Emakume honen diskurtsoa ondorio horren gauzatzearen adibide izan daiteke.

Emakumearen irudia nahiko ezberdina da hiru belauanaldien ikuspuntutik, alderik handiena nagusi bien eta gazteenaren artean igarri dut. Sasoiko emakumeak eta helduak "ontzat" ematen dute emakumezkoa **euskal nazionalismo** tradizionalak bere egin duenarengandik oso hur dago. Emakumeak "patxadazkoa" izan behar du, horren gainean ez dago zalantzarik.

"Emakumea patxadazkoa izan behar da, bai". (Emakumea II, 53 urte)

"Ba emakumeak patxadazkoak izan behar du, horrela erakutsi zigun gure amak. Gauzak egiten jakin behar du emakumeak, etxeko gauzak eta" (Emakumea I, 87 urte)

“Zuk badakizu zer den etxe baterako gauza txarrena? Ba gauzarik txarrena dira itogina eta andra zuztarbakoa. Etxea eramaten jakin behar du andrak, garbitzen, patxadazkoa izan behar du, seme-alabak aurrera atera, zorrik egin barik. Itoginak badaude etxea hankaz gora doa, eta emakume zuztarbakoarekin ere bai”. (Emakumea I, 87 urte)

“Patxadazko” emakumearen ezaugarriak oso erroturik izan arren, azken urteetan gertatutako aldaketen berri badute, eta esanguratsua iruditu zait aldeko jarrera azaltzen dutela.

“Alabari patxadazko andra izaten irakatsi diot, bai. Emakumeak denetarik egiten jakin behar du. Baina gauzak diferenteak dira orain, orain gizonak ere gauza asko dituzte” (Emakumea I, 87 urte)

“Andra barik nekezago zebilen etxea gizon barik baino. Andra faltatzen zenean asko igartzen zen, orain ere holan da nahiz eta gaurko mutilek denetarik egiten duten...” (Emakumea II, 53 urte)

Familian jasotako eta kalean jasotakoaren arteko kontraesanik handienak emakumerik gazteenak bizi ditu.

“Gauza bat da etxean erakutsi didatena, beste bat kalean ikasi dudana... eta beste bat orain nire etxean ikusten dudana. (Emakumea III, 28 urte)

Badaki nolakoa izan beharko lukeen, baina eguneroko bizitzan egoerak ez dira hain argiak. Familiaren bitartez

transmititutako baloreen pisuaren kontzientzia dauka. Oso adierazgarria iruditu zait baieztapen hori, badelako zerbait, aldaketaren aldeko urrats oso txikia izan badaiteke ere.

“Ni ahalegintzen naiz, eta bera ere, baina eguneroko bizimoduan ikusten dudana da neskatxiek beti amaitzen dugula gauza gehiago egiten, beti amaitzen duzu mutilak baino gauza gehiago egiten. Asko kostatzen da etxean erakutsi dizutena aldetik kentzen, hor daukazu eta azkenean horrek galtzen zaitu. Berak ez dit esaten ez duela egin nahi, edo, baina... azkenean nik egiten dut. Egin beharko litzateke dena erdinabana, bai etxea, bai umeak...”
(Emakumea III, 28 urte)

▣ Emakumea eta transmisioa

Euskara identitatearen osagai garrantzitsua da hiru emakumeontzat. Etxean jaso dute euskara, eta auzoan, herrian, ere indartu da identitate hori. Hirurentzat euskara oso inportantea da.

Sasoiko emakumeak estuki lotzen du hizkuntza aitaren eta amaren ideologia nazionalistarekin. Kariño handiz gogoratzen ditu zenbait pasarte.

“Niretzat euskara oso inportantea da. Umetatik erakutsi ziguten euskara inportantea zela. Gure ama oso nazionalista zen, oso nazionalista. “Bueltea datorrenean, ai! bueltea datorrenean”, esaten zuen, baina gixajea buelta ezagutu barik joan zen... Aita eta ama oso

euskaltzaleak ziren. Etxekoak ere oso euskaltzaleak ziren. Behin gure Josebak tio esan zion osaba Jesuseri, eta haserretu egin zen. "Niri ez gehiago tio deitu gero, ni osaba naiz" Eta ez zion gehiagorik tio esan, hain esan zion serio" (Emakumea I, 87 urte)

Euskarak jasandako debekuen ditu gogoan informatzaile helduak, badauka ikuspuntu historiko bat.

"Etxean umetatik erakutsi digute inportantea dela. Nik pentsatzen dut gure aurrekoak euskara eta nazionalizmoa dena batera eraman zutela, orduan inportantea zen. Franco sartu zenean kendu egin ziguten euskara, ezin zen euskararik egin, eskolan ere ezin zen euskararik egin..." (Emakumea II, 53 urte)

Bai etxean, bai etxetik kanpo ere euskara gordetzeko ahaleginak gogoan dituzte hirurek. Familiako nagusiek euskararen iraupenaren alde egindako lana kariñoz oroitzen dute.

"Eskolan dena egiten genuen erderaz, den-dena. Eta etxera etortzen ginen batzutan erdi erderaz egiten. Zelango bronkak botatzen zizkigun osabak, bueno... "Maketaniara bialduko zaituet, Maketaniara!", esaten zigun. Nik ez dakit ba non zegoen Maketania famosoak, baina urruti izan behar zuen. (Barreka) Eta hark esaten zigun erderaz egiten genuen bakoitzean ogerleko bat ipini behar genuela. "Erderaz egiten duzuen bakoitzean ogerlekoa ipini". (Emakumea II, 53 urte)

"Auzoan beti egin dugu euskaraz, eta erderaz eginez gero beti zegoen izekoren bat edo euskara ahaztuko zaigula esaten... "Euskara

ahaztu eta erdera ondo ikasi ez, hori da zuoi pasatuko zaizuenaren...” Hori esaten ziguten. Kaña asko sartuko digute”. (Emakumea I, 28 urte)

Gaur egun ere, emakume helduak direla, antzerako portaerak identifikatzen dituzte.

“Orain ere koadrilan euskaraz egiten dugu baina errez jauzten gara erderarara, norbaitek esaten duen arte, “Zuek zer, ez dakizue euskararik ala? Eta, ba, halan ibiltzen gara” (Emakumea II, 53 urte)

Euskararen transmisore ikusten dituzte euren buruak, eta argi daukate katerik ez dutela etengo. Emakumearen transmisio eginkizuna betetzeko prest agertu dira. Hizkuntzaren dagokionez kontzientzia handia daukate hiru emakumeek, arestian esan bezala.

“Bai argi daukat, bai, asmoa behintzat nire umeei nik jaso dudana kontatzeko, etxean entzun ditudanak eta... Eta euskaraz egingo diet, zalantza barik” (Emakumea III, 28 urte)

“Gure etxean beti egin dugu euskaraz, beti. Otu ere ez erderarik egiterik!” (Emakumea II, 53 urte)

Adierazpenok argi erakusten dute euskararen biziraupenaren arduradun emakumea izan dutela hein handi batean, baina baita familia ere.

Euskararen transmisioaren inguruan arrakala gutxi topa daiteke hiru emakume hauen diskurtsoan, baina herri literaturaren, ohituren, abestien... transmisioaren gainean egoera kezkarriagoa da. Esparru horretan katea eten izanaren kontzientzia nabari zaie. Baina, badirudi hizkuntzaren biziraupenak isla handiago duela.

“Igal kantak irakatsi dizkiet batez ere, gura dut esan kantatu egiten genuela batez ere... Alabari gauza batzuk erakutsi dizkiot, baina nik baino gutxiago daki.” (Emakumea III, 28 urte)

“Galtzen joan da. Neure amak ere nik baino gehiago dakizki, eta nik neure umeak baino gehiago. Ez dakit zergatik baina ez dituzte ikasi, baina bueno, beste gauza batzuk ikasi dituzte guk ez dakizkigunak, ez?” (Emakumea II, 53 urte)

“Pentsatzen dut asko galdu duela gure belaunaldiak, amak eta amamak baino kontu eta abesti gutxiago dakizkit. Bai, halan dela uste dut” (Emakumea III, 28 urte)

Euskararen transmisioa aztertzen duen atalaren amaieran sexuen arteko rol banaketak hizkuntza minorizatueta duen eragina landu dut. Landa-lana burutzean, zenbait datu jaso ditut horren inguruan. Horrela gogoratzen du emakumerik gazteenak:

“Koadrilan ere euskaraz egin dugu beti. Baina gogoratzen dut adin lelo hori geneukanean, 15-16 urterekin erderaz egiten genuela batzuetan, baina pasatu zitzaigun” (Emakumea III, 28 urte)

Bere amak ere antzerako bizipenak deskribatzen ditu, eta ausartzen da hipotesi bat plazaratzen.

“Baina, kanpoan, neskatxiek erderaz egiten genuen, mutilek ez, mutilek beti egiten zuten euskaraz. Orduan gazteen artean neskek erderaz egiten genuen eta mutilek euskaraz, eta orain ere holan segitzen duela uste dut ikusten dudanagatik. Ez dakit zergatik. Inportantzia emateko edo, batek daki”. (Emakumea II, 53 urte)

Nekazal guneetako herri txikietan, oso euskaldunetan, emakumeek erdararen aldeko jokaera erakutsi izan dute historikoki, eta gizonek euskararen aldekoa. Emakume hauen bizipenek bat egiten dute datu horiekin.

Telebistak eguneroko bizimoduan izandako eragina presente dago elkarrizketatuen erantzunetan. Aldaketarekin lotzen dute telebista, nahiz eta ez duten argi zein den bere eragin zehatza. Familiako kideen batera emandako denboraren kalitatearen kalterako izan dela badakite.

“Ez, askoz gutxiago dakizkite (seme-alabek). Galtzen joan da. (...) Telebista ezagutu dute beti. Telebistak asko kendu du. Gure etxera nebak 20 urte egin zituenean heldu zen. Berak erosi zuen”. (Emakumea II, 53 urte)

“Lehen kontu gehiago jakiten genuen. Ez dakit zergatik izango den, baina halan da... Telebista ikusten dugu orain, ez dakit. Gauzak asko aldatu dira, bai” (Emakumea I, 87 urte)

□ **ONDORIO NAGUSIAK**

Sakontze egitasmoaren ondorio nagusiak jorratu baino lehen, arestian egindako ohar bat gohoratu gura dut, hots, landa-lanak dituen mugak erabilitako informatzaile kopurua dela eta.

Egitasmoa mamitzeko erabilitako materiala orain arte plazaratutako ikerketa-lanak izan ditu oinarrian. 80ko hamarkadan argitaratutako lanak dira gehienak, beste batzuk 90koak dira. Amaren irudiaren edo etxearen zentraltasunaren gaineko irudiak jarraitzen du sasoiko emakumeen eta helduen artean, landa-lanak erakusten duenez. Belaunaldi gazteenarentzat garrantzia galtzen du, baina ez da desagertzen. Emakume hauek etxean jasotako heziketak bat egiten du euskal nazionalismoaren baloreekin, familia, etxea, seme-alabak, hizkuntza...

Euskararen irauteari dagokionez, emakumeak dauka hizkuntzaren transmisio bere gain bera delako umeak hazten dituen, baina gure informatzaileen arabera, hizkuntza gordetzea komunitate osoaren ardura da. Euskararen iraupenaren zaintza horretan etxeak hartzen dute parte, baina baita auzokoez ere. Arduraren hedapena

auzora iristen dela baieztatzea azpimarratzeko modukoa iruditzen zait.

Amak dauka lehentasuna seme-alaben baloreen transmisioan, aita gehienetan nahiko kanpo geratzen da prozesu horretatik. Beste behin ere alde handiena emakume gazteenarengan topatu dut, aurrekoentzako sendoak ziren funtzionatzeko moduak ez baitira oso baliagarriak berarentzako. Hor badago kezka bat, ezinegon bat.

Familiek kontrabotere legez izan duten pisua oso agerikoa da, elkarrizketatu hauen azaltzen digutenez. Familia, tartean amaren garrantzia azpimarratuz, izan da ideologia nazionalistaren erreprodukzioaren arduraduna. Prozesua oso arrakastatsua izan da. Ideologia nazionalistarekin batera hizkuntza erreproduzitu da. Emakume hauen kasuan ez da zirrikiturik egon.

ERANSKINAK

▣ Sakoneko elkarrizketak egiteko gidoia

EMAKUMEA ETA TRANSMISIOA HIRU BELAUNALDIREN IKUSPUNTUTIK

Landa-lana nahiko mugatua izan da kopuruari dagokionez. Hiru emakume elkarrizketatu ditut, etxe bereko amama, ama eta loba. Elkarrizketen gidoiak nahiko antzerakoak dira euren artean, baina badago alderen bat.

●AMAMA

Aurkezpena eta sarrera.

BIOGRAFIA txiki bat.

Jaiotze data eta lekua. Lanbidea. Seme-alaba kopurua.

1. Nor-zer?

-Umetako sasoiak baserrian emon zenuen? Baserrian sutondoan kontuka-kontuka ibiltzen zintaten?

-Zertaz egiten zenuten berba sutondoan? Lehenagoko historiak, egunean zehar auzoan edo baserrian pasatutakoak, kantikak, ohiturak, ipuinak, ...

-Nor zen kontaria? Ama, amama, aita, aitita... Nor zen kontari onena?

-Eta zer zen umeei gehien gustatzen zitzazuena?

-Zeu ere kontari hasiko zinen noizbait. Gogoratzen duzu zenbat urterekin?

2. Hizkuntzaren inguruan

-Euskaraz egiten zenuten etxean gurasoekin eta? Beti? Denekin?

-Zeuk ere zeure etxean, zure umeekin euskaraz egin duzu beti? Gaur egun ere? Eta gizonagaz ere euskaraz?

-Kalean ere euskaraz egiten zenuten? (dendan, medikuarenean...) Gaur egunean?

-Euskara zer da zuretzako? Garrantzitsua da? Euskararen alde egon zaude? Garrantzitsua da lobei eta euskaraz egitea?

-Euskaraz berba egitea, andrak eta gizonak berdin egiten dute? Nork gehiago? Gizonak erdara gehiago-Emakumeak erdara gehiago?

Lehen eta orain berdin da, edo aldatu egin da gizonek eta andrek egiten dutena?

3. Katea eten da?

-Etxean entzundakoak zeuk ere kontatu dizkiozu zeure umeei. Zeure umeei kontatu dizkiote eurenei? Zure beste historia dakizki alabak? Eta lobek?

Eta zergatik izango da zu baino gutxiago dakizkiela?

-Zure amak edo amamak, nork zekien kontu gehiago? Alabak baino gehiago dakizkizu zuk? Zergatik pentsetan dozu izan daitekela?

-Gaur egungo gazteei gustetan zaizkiela pentsatzen duzu? Eta zergatik ez zazkie gustatzen?

-Zergatik pentsatzen duzu gero eta kontu gutxiago dakigula? Telebisioaren errua, igual?

Zein izan da zuretzako aldaketarik handiena?

4. Baloreen gainean

-Emakume ona zelakoa da zure ustez? Zer euki behar du? Eta zer ez?

-Nork irakatsi zizun horrela izan behar zuela?

•ALABA

Aurkezpena eta sarrera.

BIOGRAFIA txiki bat.

Jaiotze data eta lekua. Lanbidea. Seme-alaba kopurua.

1. Nor-zer

-Umetako sasoia. Baserrian sutondoan kontuka ibiltzen zintaten? Neba-arreba guztiak?

-Zertaz egiten zenuten berba sutondoan? Lehenagoko historiak, egunean zehar auzoan edo baserrian pasatutakoak, kankak, ohiturak, ipuinak, ...

-Nor zen kontaria? Ama, amama, aita, aitita... Nor zen kontari onena?

-Eta zer zen umeei gehien gustatzen zitzaizuen?

-Zeu ere kontari hasiko zinen noizbait. Gogoratzen duzu zenbat urterekin? Orain ere ibiltzen zara?

-Telebisorik euki zenuten umetan? Gogoratzen duzu aldaketa handirik ekarri zuen?

2. Hizkuntzaren inguruan

-Euskaraz egiten zenuten umetan etxean? Beti? Denekin?

-Kalean ere euskaraz egiten zenuten? (dendan, medikuarenean...) Gaur eguenean?

-Zeuk ere ezkondu ostean, zure umekin euskaraz egin duzu beti? Gaur egun ere? Eta gizonagaz ere euskaraz?

-Euskara zer da zuretzako? Garrantzitsua da? Euskararen alde egon zaude? Garrantzitsua da seme-alabei eta euskaraz egitea? Lobei ere egingo diezu euskaraz?

-Euskaraz berba egitea, andrak eta gizonak berdin egiten dute? Nork gehiago? Gizonak erdara gehiago-Emakumeak erdara gehiago?

Lehen eta orain berdin da, edo aldatu egin da gizonek eta andrek egiten dutena?

3. Katea eten da?

-Etxean entzundakoak zeuk ere kontatu dizkiozu zeure umeei? Amak beste historia dakizkizu? Eta zure umeei?

Eta zergatik izango da zu baino gutxiago dakizkiela?

-Zeure amak edo amamak, nor zekien kontu gehiago?
Zergatik izan daiteke?

-Zergatik pentsatzen duzu gero eta kontu gutxiago
dakigula? Telebisioaren errua, igual?
Zein izan da zuretzako aldaketarik handiena?

-Umetatik gogoratzen duzunetik gaur egunera aldea handia
da?

4. Baloreen gainean

-Emakume ona zelakoa da zure ustez? Zer euki behar du?
Eta zer ez?

-Nork irakatsi zizun horrela izan behar zuela? Zeuk ere hori
transmititu diozu zure alabari?

-Kontraesanik ikusten duzu?

•**LOBA**

Aurkezpena eta sarrera.

BIOGRAFIA txiki bat.

Jaiotze data eta lekua. Lanbidea.

1. Nor-zer

-Gogoratzen duzu ama edo amama sutondoan kontu-kontari? Gaur egunean ere horrela al da?

-Lehenagoko historiak, kanta, ohiturak, ipuinak,... edo beste kontu batzuk ere?

-Nor zen kontaria? Ama, amama, aita, aitita... Nor zen kontari onena?

-Zein kontu gustatzen zitzaizun gehien, zeren gainekoak?

-Zeu ere kontari ibili zara noizbait? Kontari ibiltzeko asmoa badaukazu? Zer kontatuko duzu, zuri kontatutako bera?

-Beti ezagutu duzu telebisioa etxean, noiz zen kontuen unea, eta lekua?

-Euskal kulturaren transmisore moduan ikusten dituzu ama, amama... Zeure burua ere horretan ikusten duzu? Beste modu batean?

2. Hizkuntzaren inguruan

-Euskaraz egiten duzue etxean gurasoekin eta? Beti? Denekin? Lehen ere horrela zen? Aldaketarik igarri duzu?

-Zeuk ere zeure etxean, zure umeekin euskaraz egiteko asmoa daukazu?

-Kalean, herrian, euskaraz aritzen zara? Erderaz?

-Euskara zer da zuretzako? Garrantzitsua da? Euskararen alde egon zaude?

-Euskaraz berba egitea, andrak eta gizonak berdin egiten dute? Nork gehiago? Gizonak erdara gehiago-Emakumeak erdara gehiago?

Lehen eta orain berdin da, edo aldatu egin da gizonek eta andrek egiten dutena?

3. Katea eten da?

-Etxean entzundakoak zeuk ere kontatuko dizkiozu zeure umeei. Amak edo amamak beste kontu badakizkizu?

-Zure amak edo amamak, nork daki kontu gehiago? Zergatik pentsatzen duzu izan daitekela?

-Erakagarriak edo interesgarriak iruditzen zaizkizu amamari edo amari entzundakoak? Zergatik?

-Zergatik pentsatzen duzu gero eta kontu gutxiago dakigula? Telebisioaren errua, igual? Zein izan da zuretzako aldaketarik handiena?

4. Baloreen gainean

-Emakume onak ze ezaugarri izan behar ditu zure ustez? Zer euki behar du? Eta zer ez?

-Nork irakatsi zizun horrela izan behar zuela? Etxean?

-Kontraesanik ikusten duzu?

▣ Sakoneko elkarrizketen fitxa teknikoa eta transkripzioak

EMAKUMEA ETA TRANSMISIOA HIRU BELAUNALDIREN AHOTAN

Hiru elkarrizketak osatzen dute atal hau, hiru dira protagonistak. Amama, alaba eta loba dira, Zeanurikoak.

► ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA- EMAKUMEA I

Adina: 87 urte (1920an ikasi)

Herria: Zeanuri

Elkarrizketa egin zen lekua: Elkarrizketatuaren etxeko sukaldean.

Eguna eta ordua: 2007ko irailaren 20an, 18.00etan.

Elkarrizketaren iraupena: 45 minutu inguru.

Elkarrizketatuaren biografia:

Zeanurin jaio zen, plazan. Bost neba-arrebatatik hirugarrena da bera. 12 urterekin neskame hasi zen. Igorren, Donostian eta Pasaian egin zuen behar ezkondu baino lehen. Eskolara gutxi joan zela dio. Elizondo auzora ezkonduzen, gizonaren baserrira. 31 urterekin ezkondu zen. Gerra amaitu ostean ezkondu zen. Senarra kartzelan izan zen eta horrek atzeratu zuen ezkontza. Seme-alaba bi izan zituzten, mutil bat eta neska bat. Ezkondu zenean, etxean gizona eta berataz gain, gizonaren ama, eta anai ezkongabe bi zeuden. Senarrak zerran egiten zuen lan. Beraz, etxeko ardura berea zen osorik. Baserri berean bizi da gaur egun, alarguna da.

TRANSKRIPZIOA:

1. Nor-zer?

Afaldu ostean baserrian beti zegoen beharren bat egiteko, batzutan igual borrokan ere egiten genuen. Amak ipintzen zigun lana, eta esaten zigun "gau egin barik ez zoazte lotara!". Sutean baharrreran geundela egunean zehar gertatutakoez berba egiten zen batez ere. Artoa zuritzen genbiltzanean batez ibiltzen ginen kontu-kontuka, baina igual gehien-gehien auzonekoak ere etortzen zirenean... Beti batzen ginen sutean... Baina kalean ere entzuten genituen horrelako kontuak, igual etxean baino gehiago.

Herrikoen gaineko istorio asko gogoratzen ditut ume eta gaztea nintzenetik, Apolinarena, Txolonena, Tomas Pistena... Tomas Piste koitadua ez zen, ez zen... guztiz zuztarduna. Jaube bakoentzako etxe baten bizi zen. Orain ere etxea hor dago. Kontu xebreak ziren, benetan pasatutakoak... Otros tiempos. Baina gehiagorik ez naiz akordatzen, ahaztu egingo zitzaizkidan...

Aita oso gizon serioa zen, oso serioa. Guk amarekin egiten genuen batez berba. Ez zuen berba askorik egiten aitak. Hark bazituen esaerak eta. "Nire faltan zer egingo duzue?", esaten zigun, "Ez jatzue inor etorriko zuoi hona"... Baina jenioa zeukan, e? Badakizu zer esaten zuen? Ba, berriro ezkondu beharko balu maketo batekin ezkonduko zela. Zergatik? Ba, ikusten zituelako plazan, eta andra-gizonak besotik oratuta edo eskutik ibiltzen ziren... Eta bere gizona hain zen serioa. "Beharretik etorri eta arrasti on ere ez du esaten eta!" entzuten genion amari kexatzen batzuetan. Sikua zen, bai, gure aita. Morrosko handia zen, zabala, gizon fuertea. Baina serioa. Seco a no poder mas. Neure gizona plazan ikusi eta saldatu ere ez zuen egiten. Gero etortzen zitzaidan gizona esanez ez diola begiratu ere egin, eta nik erantzuten nion horrelakoa zela, ez egiteko kasurik, eta hurrengoan berak agurtzeko lehenengo. Jaramonik ere ez zion egiten.

Kontu-kontuka amarekin egiten genuen, plazan ere ibiltzen ginen, baina asko ere ez... Behar asko.

2. Hizkuntzaren inguruan

Etxean beti egiten genuen euskaraz, aitarekin eta amarekin. Neba-arreben artean ere euskaraz egiten genuen, eta zaharrekin ere

euskaraz. Auzonean ere euskara bakarrik egiten zen. Jakin ere ez zekigun besterik eta... Erderaz lehen txarto eta orain ondo ere ez. Erderaz kanpoan ikasi nuen, kriada egon naiz urte askoan, Donostian eta Pasaian eta han ikasi nuen. Botikan ere lanean egon nintzenez, kriada, kanpotarrak zirenez han ere egin behar izan nuen erderaz. Gerra zen orduan.

Bai, neure etxean ere beti egin dugu euskaraz. Seme-alabekin, gizonarekin, etxeko zaharrekin... Denekin, bai. Besterik jakin ere ez guk!

Bai, niretzat euskara oso inportantea da. Umetatik erakutsi ziguten euskara inportantea zela. Gure ama oso nazionalista zen, oso nazionalista. "Bueltea datorrenean, ai! bueltea datorrenean", esaten zuen, baina gixajea buelta ezagutu barik joan zen... Aita eta ama oso euskaltzaleak ziren. Etxekoak ere oso euskaltzaleak ziren. Behin gure Josebak tio esan zion osaba Jesuseri, eta haserretu egin zen. "Niri ez gehiago tio deitu gero, ni osaba naiz" Eta ez zion gehiagorik tio esan, hain esan zion serio.

Gure denboran herrian euskaraz egiten zen, denok egiten genuen. Nire gaztaroan erderarik ez zen hemen entzuten. Orain ere euskaraz egiten da herrian, baina erderaz ere egiten da. Kanpoko jendea etorri da. Etxe berriak egin dituzte, hemen merkeago direnez, ba jende asko daukagu berria. Eta horrek ez dakite euskaraz, eta erderaz egiten dute. Oraintsuko gauza da hori.

Biak (lobak) egiten dute euskaraz. Neskak bietara daki, baina mutila oraintsu hasi da erderaz egiten, eta hamazazpi urte dauzka. Askokostatzen zaio erderaz egitea, etxean euskaraz, lagunekaz ere euskaraz... ba, ez du erderarik ikasi. Eta orain hasi da egiten, niri eta bere aitari ez digu erderarik egiten, baina amari eta arrebari batzutan erderaz egiten die...

3. Katea eten da?

Igual kanta irakatsi dizkiet batez ere, gura dut esan kantatu egiten genuela batez ere... Alabari gauza batzuk erakutsi dizkiot, baina nik baino gutxiago daki.

Lehen kontu gehiago jakiten genuen. Ez dakit zergatik izango den, baina halan da... Telebista ikusten dugu orain, ez dakit. Gauzak asko aldatu dira, bai

4. Baloreen gainean.

Ba emakumeak patxadazkoak izan behar du, horrela erakutsi zigun gure amak. Gauzak egiten jakin behar du emakumeak, etxeko gauzak eta. Amak esaten zigun zorora lanera joan orduko etxeko lanak egin da uzteko esaten zigun amak, "Iñarrea pasetako astirik ez badago egon dadila, baina oheak eginda, eta abarketak euren lekuan egon behar dira". Hori beti esaten zuen. Zorotik abarkak lohituta ekarriz gero uregaz pasatu behar ziren lehenengo ze osterantzean...

Bazegoan emakume bat herrian, Petra izenekoa. Etxeko baten hiletara joan behar zuela eta gure amari erropa eta zapatak eskatu zizkion, berak ez zeukala eta erropa beltzik. Gure amak baietz esan zion, baina gero bueltan ekartzeko, eta garbituta ekartzeko. Eta ekarri zion dena bueltan, eta halan ere berak berriro garbitu zuen. Ez dakit zelan utzi zion emakume hari bere erropa onak. Zuztarbakotxuak ziren harek. Egurrik ez txikertutearren suteko behagaineko oholekin egiten zuten sua behesuan. Amak ez zigun uzten Errebaldera joaten, olgetan-olgetan kortara jauziko ginela esaten zigun. Atera kontuak zelakoak ziren. Extremo horretara helduz gero... Holako gauzak kontatzen dizkiozu gazteei eta sinetsi ere dizute egiten, baina horrela bizi ginen gu lehen.

Zuk badakizu zer den etxe baterako gauza txarrena? Ba gauzarik txarrena dira itogina eta andra zuztarbakoa. Hori esaten du Jose Inaziok. Etxea eramaten jakin behar du andrak, garbitzen, patxadazkoa izan behar du, seme-alabak aurrera atera, zorrik egin barik. Itoginak badaude etxea hankaz gora doa, eta emakume zuztarbakoarekin ere bai.

Gizonak basoan edo kanpoan egiten bazuen behar emakumeak egin behar zituen zorokoak eta kortakoak. Behar asko egina naiz ni. Orduan ez zegoen labadorarik eta dena egin behar zen eskuz. Etxean amaxea neukan, zeme-alabak, gizona... Behar asko egindakoa naiz eta orain nekatuta nago, baina ez didate uzten erretiratzen. Eguna oso luzea zen. Bizi osoa eman dut lan eta lan, umetatik. Orain balio ere ez dut egiten, urteekin... Jatekoa nik prestatzen dut, komunak ere garbitzen ditut batzutan, txakurrari jaten eman... Beti dago zeozer egiteko.

Alabari patxadazko andra izaten irakatsi diot, bai. Emakumeak denetarik egiten jakin behar du. Baina gauzak diferenteak dira orain, orain gizonak ere gauza asko dituzte. Gauzak aldatu egin dira.

► ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA- EMAKUMEA II

Adina: 53 urte (1954an jaioa)

Herria: Zeanuri

Elkarrizketa egin zen lekua: Elkarrizketatuaren etxeko sukaldean.

Eguna eta ordua: 2007ko irailaren 20an, 19.00etan.

Elkarrizketaren iraupena: 45 minutu inguru.

Elkarrizketatuaren biografia:

Rosi Zeanurin jaio zen. Neba bat dauka, bera da gazteena. Bizi den baserrian bertan jaio zen. 17-18 urtera arte egin zituen ikasketak. 18 urterekin hasi zen lanean Bilbon. Bere gurasoen baserrira ezkondu zen, 23 urterekin. Ezkondu eta laster izan zuen alaba, eta handik bederatzi urtera semea. Beti egin du lan etxetik kanpo goizez edo arratsaldez, horrela lanetik bueltan etxeko beharrak egin izan ditu beti. Bere amak jagon ditu seme-alabak bera lanean zegoenean.

TRANSKRIPZIOA:

1. Nor-zer?

Nik etxean baino gehiago gogoratzen dut kanpoan zelan batzen ginen. Hamalau ume ginen auzonean. Osabarenean batzen ginen askotan. Lehenengo telebista berak euki zuen eta han batzen ginen denok. 12 urte edo eukiko nuen. Erronboak agertzen ziren pelikuletan eta, eta etxera bialtzen ginduen. Gogoratzen dut bai erronboena... Silla pilo bat ipintzen zituen telebista aurrean, eta han egoten ginen hamalauok, zinean moduan

Ondo konpontzen ginen umeak osabarekin. Euren baserrian askotan batzen ginen kontu kontetan, baina batez ere kantatzen, asko gustatzen zitzaion kantatzea. Asko kantatzen genuen, asko.

Nik umetan gogoratzen dut sutea zela etxeko erdigunea, han egiten zen bizia. Niretzako beti izan da inportantea. Eta orain ere

niretzat zentroa da. Gaur egun ere denbora gehien sutean ematen dugu.

2. Hizkuntzaren inguruan

Ba, niretzako euskara gauza oso inportantea da. Etxean umetatik erakutsi digute inportantea dela. Nik pentsatzen dut gure aurrekoak euskara eta nazionalizmoa dena batera eraman zutela, orduan inportantea zen. Franco sartu zenean kendu egin ziguten euskara, ezin zen euskararik egin, eskolan ere ezin zen euskararik egin... Baina zuri esaten badizue ezin duzula egin, ba, zuk gogo gehiagorekin egiten duzu, ez? Francok egin zuen dena nahastu euskara, nazionalismoa... dena.

Gure etxean beti egin dugu euskaraz, beti. Otu ere ez erderarik egiterik! Baina, kanpoan, neskatziek erderaz egiten genuen, mutilek ez, mutilek beti egiten zuten euskaraz. Orduan gazteen artean neskak erderaz egiten genuen eta mutilek euskaraz, eta orain ere holan segitzen duela uste dut ikusten dudanagatik. Ez dakit zergatik. Inportantzia emateko edo, batek daki. Orain ere koadrilan euskaraz egiten dugu baina errez jauzten gara erderarara, norbaitek esaten duen arte, "Zuek zer, ez dakizue euskararik ala? Eta, ba, halan ibiltzen gara. Gizonarekin beti egin dut euskaraz, etxean denok euskaraz. Seme-alabei ezin diet egin erderarik, orain zaila egiten zait, eta txikitxutan inposible. Eta orain ere ume txikerrekin euskaraz egin behar dut, ezin nezake egin erderarik. Badaukat lehengusina bat umetan eta beti euskaraz egiten zuena, baina euskara galdu zuena. Baina seme-alabak euki eta berriro hasi zen euskaraz egiten bere umei erakusteko.

Beti egin dugu euskara etxean. Baina seme-alabak txikiak zirenean berba bat ere ez genuen erderaz egiten, bat ere ez.

Eskolan dena egiten genuen erderaz, den-dena. Eta estera etortzen ginen batzutan erdi erderaz egiten. Zelango bronkak botatzen zizkigun osabak, bueno... "Maketaniara bialduko zaituet, Maketaniara!", esaten zigun. Nik ez dakit ba non zegoen Maketania famosoa, baina urruti izan behar zuen. (Barreka) Eta hark esaten zigun erderaz egiten genuen bakoitzean ogerleko bat ipini behar genuela. "Erderaz egiten duzuen bakoitzean ogerlekoa ipini". Eta nondik aterako genuen ba guk ogerlekoak orduko sasoiari? Gainera, eskolan "Cara al sol" kantatzen genuen, guk orduan ez genekien zer gura zuen esan ere. Etxera gatzela batzutan, bidean eta etxera

sartueran "Cara al sol" abesten etortzen ginen. Bueno, orduan beste bronka bat. Eta zelangoa!

Auzoan ere erderaz ezin zen egin, ez ziguten uzten. Beti zegoen norbait euskaraz egin behar genuela esaten. Auzo honetan ez dago etxe askorik, ta ni umea nintzenean hamalau edo ginen denok adin antzerakodunak. Gainera ia denok ginen senitartekoak, lehengusu-lehengusinak.

3. Katea eten da?

Bai, txikiak zirenean ibiltzen ginen abesten umeekin. Seme-alabak txikiak zirenean asko abesten nuen eurekin. Kanta batzuk nik erakutsitakoak ziren eta beste batzuk eskolan ikasitakoak...

Ez, askoz gutxiago dakizkitez (seme-alabek). Galtzen joan da. Neure amak ere nik baino gehiago dakizki, eta nik neure umeak baino gehiago. Ez dakit zergatik baina ez dituzte ikasi, baina bueno, beste gauza batzuk ikasi dituzte guk ez dakizkigunak, ez? Telebista ezagutu dute beti. Telebistak asko kendu du. Gure etxera nebak 20 urte egin zituenean heldu zen. Berak erosi zuen.

4. Baloreen inguruan

Emakumeak egiten zuen dena lehen baserrian. Jatekoa egin, umeak jagon, etxeko zaharrak jagon, garbitu, kortako beharrak... Matriarcado vasco zen lehengoa, dena eramaten zuen berak... Beran arduraduna. Emakumea patxadazkoa izan behar da, bai.

Ba, agindu gizonak aginduko zuen ia beti. Baina andra inportantea zen etxean, eramaten zuen dena. Andra barik nekezago zebilean etxea gizon barik baino. Andra faltatzen zenean asko igartzen zen, orain ere holan da nahiz eta gaurko mutilek denetarik egiten duten...

► ELKARRIZKETATUAREN FITXA TEKNIKOA- EMAKUMEA III

Adina: 28 urte (1979an jaioa)

Herria: Zeanuri

Elkarrizketa egin zen lekua: Zeanuri.

Eguna eta ordua: 2007ko irailaren 21ean.

Elkarrizketaren iraupena: 30 minutu inguru.

Elkarrizketatuaren biografia:

Itsasne Zeanurin jaio zen. Neba bat dauka, bera baino gazteagoa. 18 urtera bitarteko ikasketak euskaraz egin zituen, Psikologia ikasketak berriz ia dena erderaz egin behar izan zuen. Zeanurin bizi da gaur egun ere, plazan. Gazteekin harremana duen zerbitzu batean ari da lanean orain.

TRANSKRIPZIOA:

5. Nor-zer?

Guk bizimodua beti egin dugu sukaldean. Gogoratzen dut denok sutean zelan egoten ginen, txapa piztuta eta epeletan. Hemen berba egiten egoten ginen, ama eta beharrea... Ume-umetan harreman handia neukan amamarekin. Ama beharrea zegoen eta berak jagoten ninduen. Berarekin egoten nintzen egun osoa. Berak eramaten eta ekartzen ninduen eskolatik, eta beragaz joaten nintzen plazaraino amari itxaroten. Ama kotxearekin etortzen zen Bilbotik eta gero hirurok agoten ginen batera. Amamak hazi ninduen. Nebarekin ere berdin egiten zuen gero. Neba ni baino nahiko gazteagoa da, bederatzi urteko aldea daukagu.

Kontu-kontatzen amamarekin gogoratzen naiz. Amamarekin ematen nuen egun osoa. Eta amama zoratu beharrea neukan. Ez nuen bat ere jaten, eta amama beti larri ez nuelako ezer jan nahi. Oraindik gogoratzen da eta esaten dit lantzean behin zelako txarto pasatu arazi nion.

Kantatzen gogoratzen dut sutean, denok batzen ginen, baina Aimar ere bazegoen orduan. Gogoratzen dut lotara joan orduko ama etortzen zela ipuinen batekin, Teoren konturen batekin eta holan

hartzen ninduen loak. Gasteizeri buruzko liburu bat gogoratzen dut, Zeledonon istorioa kontatzen zuen, asko gustatzen zitzaidan, zergatik ez dakit baina asko gustatzen zitzaidan. Gaur egunean ere asko gustatzen zait irakurtzea...

Umetan ni nintzen txikerrena auzoan, eta neska bakarra. Denean ibiltzen nintzen, denen etxean, hara eta hona. Eta mutilekin ibiltzen nintzen.

Izeko Bego ere gogoratzen dut nire haurtzaroan, eta beti erabiltzen ginduen atzera eta aurrean, beti aidean. Berarekin sarritan ibiltzen ginen kantuka ume guztiok.

2. Hizkuntzaren inguruan.

Nik sei bat urterekin ikasi nuen erderaz. Polito egiten ei nuen. Hamalau urtera arte Zeanuriko eskolan ikasi nuen, gero Lauaxetara joan nintzen 18 urtera arte. Eta han erdera asko egiten genuen. Niretzat aldaketa handia izan zen. Zeauriko eskola oso txikia zen, denok ezagunak. Irakasle gutxi geneukan. Beste mundu bat ematen zuen. Ez nintzen ezetaz enteretan Lauaxetan. Han erreferenteak beste batzuk ziren. Zeanuriko eskolako gauza asko gogoratzen ditut, Gabonetan zelan apaintzen genuen dela... Andereñoak ere gogoan dauzkat. Oroitzapen oso gozoak dauzkat.

Auzoan beti egin dugu euskaraz, eta erderaz eginez gero beti zegoen izekoren bat edo euskara ahaztuko zaigula esaten... "Euskara ahaztu eta erdera ondo ikasi ez, hori da zuoi pasatuko zaizuen..." Hori esaten ziguten. Kaña asko sartuko digute. Gaur egunean normalean euskaraz egiten dugu, gairen baten gainean igual nahastean.

Koadrilan ere euskaraz egin dugu beti. Baina gogoratzen dut adin lelo hori geneukanean, 15-16 urterekin erderaz egiten genuela batzuetan, baina pasatu zitzaigun. Gaur egunean erderaz eginez gero koadrilan baten bat gogoratzen diguna euskaraz egin behar dela, "ez dkaizue zuek euskaraz ala?" esanez. Mutilarekin ere euskaraz egiten dut.

3. Katea eten da?

Bai argi daukat bai asmoa behintzat nire umei nik jaso dudana kontatzeko, etxena entzun ditudanak eta... Eta euskaraz egingo diet,

zalantza barik. Nik euki dudana haurtzaroa nahiko nuke neure umeentzat ere, giro honetan, Zeanurin. Umearo oso librea euki dugu. Erderaz berez ikasiko dute umeek, beraz etxean euskaraz egingo nibe.

Pentsatzen dut asko galdu duela gure belaunaldiak, amak eta amamak baino kontu eta abesti gutxiago dakizkit. Bai, halan dela uste dut.

5. Baloreen gainean.

Ez dakit zer esan. Gauza bat da etxean erakutsi didatena, beste bat kalean ikasi dudana... eta beste bat orain nire etxean ikusten dudana. Nik lehen pentsatzen nuen bikotearekin dena erdibana egin behar zela, baina orain ikusten dut ez dela horrela. Pentsatzen dut zortea dudala. Nire mutilak nik baino askoz hobeto daki janaria prestatzen, gauza asko irakatsi dizkit. Beste gauza batzuk... Ni

ahalegintzen naiz, eta bera ere, baina eguneroko bizimoduan ikusten dudana da neskatxiek beti amaitzen dugula gauza gehiago egiten, beti amaitzen duzu mutilak baino gauza gehiago egiten. Askokostatzen da etxean erakutsi dizutena aldetik kentzen, hor daukazu eta azkenean horrek galtzen zaitu. Berak ez dit esaten ez duela egin nahi, edo, baina... azkenean nik egiten dut. Egin beharko litzateke dena erdinabana, bai etxea, bai umeak...

Bakoitzak bere lana euki behar du, bai. Umeak eukiz gero beharra ez nuke utziko. Nahiko nuke lau hilabete horrek baino denbora gehiago hartu igual, baina beharra utzi ez. Gaur egunean gainera ez da nahi edo ez, ezin daiteke soldata baterekin bizi. Batekin ezin daiteke urrunetik ere dena ordaindu. Nahi izanda ere ezin izango nuke lana utzi. Loteria tokatu ezean...

BIBLIOGRAFIA

AMONARRIZ, Kike (1995) "Euskararen erabilpenaren feminizazioa" in BAT Aldizkaria 15. zenbakia.

ARETXAGA, Begoña (1988) *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*. Donostia: La Primitiva Casa Baroja.

ASKOREN ARTEAN, (1988) *La mujer en la historia de Euskal Herria*. Bilbo: IPES Formazio kodearnoak.

ASKOREN ARTEAN, (1985) *Mujer vasca. Imagen y realidad*. Bartzelona: Anthropos.

DEL VALLE, Teresa (1996) *Las mujeres en Euskal Herria. Ayer y hoy*. Donostia: Egin.

DEL VALLE, Teresa (2001) *Emakumeak EuskalHerrian. Erresistentziak eta hausturak*. Donostia: Gaiak argitaldaria.

ERIZE, Xabier (1997) *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863-1936*. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.

GARATE, Gotzon (2003) *30.466 atsotitzak-proverbios-proverbs-proverbia*. Bilbo: Bilbao Bizkaia Kutxa.

JUARISTI, Patxi (2003) *Gizarte ikerketerako teknikak. Teoria eta adibideak*. Leioa: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

MACIONIS, J. J, PLUMMER, K. (1999) *Sociología*. Madril: Prentice Hall.